

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

8. astea (2024ko otsailaren 19tik 25era)

Gripe-birusaren zirkulazioak behera egiten jarraitzen du. COVID-19aren intzidentzia ere jaitsi da eta ABSk eragindako infekzioak murriztu dira.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 395,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (410,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak beherantz jarraitzen du eta bronkiolitisarenak ere pixka bat behera egin du aste honetan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 49 lagin jagoleen % 42,9 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat (positibotasuna % 2,0), gripe-birus bat (positibotasuna % 2,0) eta bi ABS (positibotasuna % 4,1) atzeman direlarik. 10 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 14,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,1/100.000 aurreko astean).
- EAeko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 46 SARS-CoV-2, 89 gripe-birus eta 24 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 395,9 kasukoa izan da (410,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 339,0/100.000 izan da Araban, 403,8/100.000 Bizkaian eta 409,6/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1822,5 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 651,3 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan, 15-44 urteko adin-taldean izan ezik.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI gehienetan aurreko astearekin alderatuta.


AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazioa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 8. astea	Tasa 7. astea	Tasen arrazioa (% 95 KT)
Arabako ESI	368,5	360,8	1,02 (0,94-1,11)
Arabar Errioxako ESI	613,5	732,8	0,84 (0,61-1,14)
Barakaldo-Sestaoko ESI	330,2	335,0	0,99 (0,86-1,13)
Barrualde-Galdakaoko ESI	434,2	446,5	0,97 (0,90-1,05)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	440,0	465,6	0,94 (0,88-1,01)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	394,0	447,5	0,88 (0,79-0,98)
Uribeko ESI	323,8	353,6	0,92 (0,83-1,01)
Bidasoako ESI	369,9	382,9	0,97 (0,82-1,14)
Debararrenako ESI	408,7	435,3	0,94 (0,80-1,10)
Debagoienako ESI	350,2	331,5	1,06 (0,88-1,27)
Donostialdeako ESI	353,3	381,0	0,93 (0,86-1,00)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	565,4	543,4	1,04 (0,92-1,17)
Tolosaldeako ESI	485,4	415,4	1,17 (0,99-1,38)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du berriro aste honetan eta 8,1 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (11,1/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) ere behera egin du eta 263,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (280,8/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoletako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 49 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 42,9 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat, gripe-birus bat (AH3) eta bi ABS atzeman dira. 10 urtaroko koronabirus eta 6 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du berriro eta % 2,0an kokatu da (% 16,0 aurreko astean), SARS-CoV-2aren balio berdina (% 6,0 aurreko astean). ABS positibotasuna % 4,1ekoa izan da (% 0,0 aurreko astean) eta urtaroko koronabirusarena % 20,4an kokatu da.


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoletan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	8. astea		7. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	1	2,0	8	16,0	235	20,0
SARS-CoV-2	1	2,0	3	6,0	68	5,8
ABS	2	4,1	0	0,0	89	7,6
Metaneumobirus	2	4,1	7	14,0	45	3,8
Parainfluenza	1	2,0	0	0,0	20	1,7
Adenobirus	0	0,0	0	0,0	26	2,2
Errinobirus	6	12,2	6	12,0	233	19,8
Urtaroko CoV	10	20,4	3	6,0	64	5,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 14,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,1/100.000 aurreko astean), 13,7/100.000 emakumeetan eta 14,9/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 41,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 20,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan, 45-64 urtekoan izan ezik.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du eta % 9,4an kokatu da aste honetan (% 6,1 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena % 3,7ra jaitsi da (% 4,7 aurreko astean). ABSren positibotasuna igo eta % 6,6an geratu da (% 4,9 aurreko astean) eta errinobirusarena % 11,6koa izan da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	8. astea		7. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	241	3,7	257	4,7	6182	10,1
Influenza	223	9,4	247	6,1	5830	20,4
ABS	197	6,6	223	4,9	4888	15,7

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 46 SARS-CoV-2, 89 gripe-birus eta 24 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 89 gripe-birusetatik, 56 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 16 A(H3) eta 17 A(H1)pdm09. 2023/40 astetik 5942 detekzio erregistratu dira, 5927 (% 99,7) A motakoak eta 15 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1807 birusetatik, 403 (% 22,3) A(H3) eta 1404 (% 77,7) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, urtarrilean, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2ren lagin positiboek % 28,2 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 90,8), BA.2.86 (% 3,0) eta JG.3 (% 1,3) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 8. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 5,2 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,4/100.000 aurreko astean); 5,5 gizonetan eta 4,9 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 19 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (23 ospitaleratu aurreko astean), 8 gizon eta 11 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 78,9 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 8. astean, COVID-19 7 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (5 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua ere 7 izan da, aurreko astean baino 2 gehiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko otsailaren 28an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**